

IDIAZABAL / Denen gustuko liburutegia

ITZIAR MUJICA.

Orain bi urteko uztailaren 8an ireki zituen ateak Idiazabalgo liburutegiak, handik aurrera aldi baterako izango zuen egoitzan: apaizetxeko lehen solairuko gela nagusian. Aurrez zegoen eraikinean, kultur etxean, eraberritze lanak egiten hasi ziren, eta amaitu bitartean apaizetxean eskaini du Udalak liburutegiko zerbitzua.

Egoitza berriko lanak aurrera doaz, eta laster bukatuko dituzte. Liburutegiarekin batera udaletxea ere etxe berean kokatuko dute orain. Dena ongi joanez gero udaberrian zehar udal zerbitzuak egoitza berrira aldatzea eta abian jartzea espero du Udalak. Eta liburute berria ere, ahal izanez gero, garai bererako ireki nahidute.

Hori dela eta, Idiazabalen etorkizuneko liburutegia nolakoa izan beharko litzatekeen diseinatzen ari da Udala, eta horretarako herritarren parte-hartzea eskatu dute, inkesten eta bileren bitartez. "Azken batean herritarrek dira liburutegia erabiliko dutenak, eta haien neurriko liburutegia egin nahi dugu Idiazabalen, haien beharrak asetuko dituen, azaldu du Ioritz Imaz Idiazabalgo alkateak.

Helburu horrekin herritarrekin bilerak egiten ari dira Udaleko hainbat ordezkari. Iritziak entzutea eta kontuan hartzea da bilera horien funtsa. Lehendabiziko saiakera egin dute jadanik, eta emaitza "oso baikorra izan da alkatearen ustean.

Udala, bere aldetik, herritarrek planteatutako proposamen horiek guztiak Eusko Jaurlaritzak liburutegientzat zehaztuta dituen gutxieneko ezaugarriekin uztartzen ari da, liburutegiko erabiltzaileek behar bezalako azpiegitura eta zerbitzuak izan ditzaten.

Lanerako garaia

Idiazabalek lehen zuen liburutegia eta inguruko herrietan ikusten dituzten liburutegiak konparatuta, hainbat proposamen egin dituzte honezkero herritarrek: haurrentzako txokoa izatea, teknologia berriak kontuan hartzea, informazio bila eta ikastera doazen gazte eta helduentzat horretarako ezaugarriak betetzen dituen gela egokia izatea, egungoa baino ordutegi zabalagoa eskaintzea... "Ahalik eta liburutegi egokiena osatzeko saiakera egiten ari gara, azaldu du Imazek. Proposamen guztiak kontuan hartzen ari direla dio, ideia guztiak landuz.

Behin liburutegiak behar dituen ezaugarriak zehaztuta, diseinu erreala egitea izango da hurrengo pausoa. "Denok nahi dugun liburutegi hori errealitatean dugun espazioan kokatzea, hain zuzen ere, Imazek azaldu duenez.

Deialdi berria

Udalak ahalik eta azkarren zehaztu nahi ditu liburutegiak izango dituen ezaugarriak. Hala, martxoaren 11n egingo dute zerbitzuaren osaketaren inguruko hurrengo bilera. Interesa duten guztiei gerturatzeko deialdia egin die Imazek, "ahalik eta jende gehien elkartzeko gero ahalik eta ideia gehien bueltan lan egiteko aukera izango baitu Udalak. Jende gazte gehiago erakarri nahiko genuke liburutegiaren inguruko bileretara, 20 eta 30 urte artekoak ere bai, azken batean haiek baitira zerbitzua gehien erabiliko dutenak, adierazi du Imazek. Hitzordua 19.00etan izango da, udaletxean.

Herritar gehiagok erabiltzen du liburutegia orain

Azken bi urteotan Idiazabalgo liburutegiaren erabiltzaile kopuruak gora egi du. Apaizetxean egonagatik eta bertan biltzen den materiala herriko liburutegiak duenaren zati bat soilik izanagatik ere, herritar gehiago joaten da orain liburutegira, eta erabiltzaileek nabaritu dute hori. "Ez dakit arrazoia zein den, baina aldaketa nabaritu egin dut, aitortu du Mila Agirrek, Idiazabalgo liburutegiko arduradunak. Apaizetxean zerbitzu gehiago moldatu izanak eragina izan dezakeelakoan dago. "Euskara eta ingeles eskolak ematen dira egoitza berean. Bertara joaten direnek liburutegia dute ondoan eta zerbitzua erabiltzeko aprobetxatzen dute. Etorkizuneko liburutegiak erabilera maila bera mantentzea erronka nagusietakoa izango da. Egun ez bezala liburutegiaren materialaren %100 aurkituko dute erabiltzaileek eskura egoitza berrian, teknologia berriekin uztartuta. Lehen ez zituen baliabideek jende gehiago erakarriko dute. Zerbitzu hobea ere eskainiko du liburutegiak eta amu garrantzitsua izango da hori Udalaren ustez.